

prentsa oharra

Joxe Takolori buruzko erakusketa zabalik Lagun Onak Mendi Bazkunaren egoitzan

Azpeitiko Lagun Onak Mendi Bazkunak, Julen Etxeberriaren eta Enekoitz Esnaolaren proposamena jasota, Joxe Urbietta *Takolo* zenari buruzko erakusketa zabaldu du, bere elkartean. Erakusketa xumea da; halakoxea zen Takolo bera. Maiatzaren 30era arte egongo da esposizioa, Xoxoteko Egunera arte.

Lagun Onak-ek bere 75. urteurrena du aurten, eta ospakizuneko egitarauaren barruko ekinbide bat da Takolori buruzko erakusketa. Haren mendiko material bat da berritasun nagusia; bestek beste, 1980an Everesteko espedizioan erabili zuena dago. Argazki batzuk ere jarri dira.

Arantxa Larrañaga elkarteko lehendakaria eta Esnaola mintzatu dira inaugurazio ekitaldian, gaur arratsaldean, Takoloren lagun min Lorenzo Nogues mendizalearen grabazio bat entzun da, eta, osasun neurriak betez, bertan izan da hainbat lagun.

Joxe Takolo

Xoxote magalean jaio zen Joxe Urbietta, 1941eko azaroaren 3an, *Takolo* baserrian — izena berez, *Miraflores* du—. Han bizi izan zen 15 urte bete arte. Txikitatik egon zen mendiari lotuta; zaletasun handia zeukan.

Inguruko mendietan behin eta berriz ibili ondoren, Takoloren Pirinioetako lehenengo irteera Añamendira izan zen, 18 urte zituela. Haren azkeneko tontorra ere, huraxe: hil baino hiru egun lehenago izan zen han.

24 urtetik aurrera ekin zion mendian modu serioago batean ibiltzeari; “mendiko mentalitatearekin” jada, aitortzen zuenez: Mont Blanc, Perdido, Vignemale, Andeak (1976)... eta 1980an, aurreneko aldiz Himalayara: Everestera, euskal espedizio historikoko kide izanik —euskal mendizale bat lehenengo aldiz munduko gailurrik gorenean: Martin Zabaleta—.

Beraz, prozesu logikotzat zeukana segitu zuen Takolok: herriko eta inguruko mendiak lehenik, handik Pirinioetara, gero Alpeetara, Andeetara, eta Himalayara. Alaskan ere egon zen, 1998an: McKinleyn.

Beti besteei laguntzen. Eta sekula ahaztu gabe familia, lagunartea, mendizale gazteak, Lagun Onak elkartea, Azpeitia, bere baratza edota mendizaleen erreskateak.

2000ko abuztuaren 12an hil zen Takolo, 58 urte zituela. Azpeitiko Uztarria Kultur Koordinakundeak 2001ean haren biografia liburua argitaratu zuen, Esnaolak idatzita.

Takoloren lagun batzuek haren heriotza zela-eta komunikabideetan zera idatzi zuten, gutun batean: “Zure ametsa bete da: igaro izan zaren lekuetan zure arrastoa utzi duzu”.

Erakusketa honekin berriro oroitu nahi da Joxe.

ERAKUSKETAREN JAKINGARRIAK

Ekitaldia. Joxe Takolori buruzko erakusketa. Garai bateko mendiko materiala, argazkiak...

Irekiera eguna. Martxoak 26 (ostirala).

Iraupena. Maiatzaren 30era arte (Xoxoteko Egunera arte).

Tokia. Lagun Onak Mendi Bazkunaren egoitza (Eliz kalea, Azpeitia).

Eskerrik asko,
2021eko martxoaren 26an,
Lagun Onak Mendi Bazkuna